ALTIAEMOBKSHEETS

TOMATE ANTIOXIDATZAILEAK

Lehenengo eta behin, galderak eta erantzun posibleak irakurri. Ondoren, 3 aldiz entzun behar duzu Tomate transgenikoak izeneko elkarrizketa.
Elkarrizketa entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzenak.

1. Tomate horiek zer dute berezi?
A. Antioxidatzaile gehiago dute.
B. Antioxidatzaile hobeak dituzte
C. Askoz goxoagoak dira
D. Osasungarriagoak dira

2. Tomate horien kolorea nolakoa da?
A. Azala iluna da, mamia argia.
B. Berenjenaren mamiaren antzekoa.
C. Mamia ere morea da, berenjanaren azalaren antzeko.
D. Mamia morea dute, ez, ordea, azala.

3. Tomate hauen geneak beste landare batzuek dituzten geneen antzekoak al dira?
A. Antz gehiago dute berenjenekin.
B. Bai masusta eta ahabiek dituzten geneen antzekoak dira.
C. Kolore antzekoa da, baina geneak ez.
D. Masustarekin sortutako hibridoak dira tomate hauek.

4. Tomate hauek minbiziari aurre egiteko balio dezakete. Zein da, ordea, arazoa?
A. Oraindik ez dela baimenik eman ekoipen industriala egieko.
B. Oraindik ez dela inolako probarik egin.
C. Oraindik oso goiz dela probak egiten hasteko
D. Oraingoz probak animaliekin bakarrik egin direla.

ALLTHEWORKSHEETS

5. Minbizia duten sagu hauek tomate hauek emandakoan zer gertatu da?
   A. 12. hilabetean hil dira.
   B. 6 hilabetetan minbizia garatu dute.
   C. Bizi iraupena luzatu egin zaie.
   D. Minbizia sendatu egin zaie.

6. Pertsonentzat baliagarri ote den jakiteko hiru fasetako esperimentuak egin behar dira. Zein da lehena?
   A. Gaixo terminalekin egiten dira lehen frogak.
   B. Gaixotasuna duten pertsonei ea onurarik ekartzen dien aztertzen da.
   C. Lehenik pertsona osasuntsuei ematen zaie.
   D. Lehenik toxikotasuna aztertzen da.

7. Zein da bigarren fasea?
   A. Biziraupena luzatzen den ikustea.
   B. Gaixotasuna duten pertsonei ea onurarik ekartzen dien aztertzen da.
   C. Toxikotasuna aztertzen da.
   D. B eta C zuzenak dira.

8. Farmazietan salgai egoteko…
   A. Protokolo zailak eta garestiak pasatu behar dira.
   B. Ez da beharrezkoa hiru faseak pasatzea.
   C. Diru asko jartzen duen enpresa farmazeutikoa behar da.
   D. A eta C zuzenak dira.

9. Tomate hau onartuko balitz zein sailetan egongo litzateke?
   A. Ardo beltzaren sailean legoke.
   B. Jada saltzen diren beste janari funtzionalen esparruan kokatuko litzateke.
   C. Janari antioxidatzaileentzat sail berri bat egiekotan dira.
   D. Oraingoz ez dago horrelako janariak sailkatzeko modurik.

ALLTHEWORKSHEETS

10. Tomate transgeniko hauek...
    A. Kolesterolaren maila odolean jeisten laguntzen dute ere.
    B. Daukazun minbizia aurrera ez joaten laguntzen dute.
    C. B eta D zuzenak dira.
    D. Minbizia prebenitzen laguntzen dute.